

Xabier Martin

ESTRASBURGO— Hiru legegintzaldi oso, ia hamabost urte Europako Parlamentuan; Izaskun Bilbao Barandika EAJko europarlamentariak (Bermeo, Bizkaia, 1961) agur esango dio politikari aste batzuk barru. Estrasburgoko legebiltzar erraldoiko korridoreetan, bulegoetan eta ganberetan arin doa aurrera; batzuk eta besteak agurtzen, eroso. Babel dorre horretan gutxi daude hark bezainbesteko eskarmentua dutenak. Lau eguneko osoko bilkura luzeko tarte batean hartu du BERRIA.

Hamabost urte joan-etorrian, hegazkin eta trenen artean saltoka, eta beti jarduera politiko biziarekin... Barneratu al duzu bazoazela?

Pentsatzen duzunerako bizitza politikoa eta ardura amaitu direla, barneratuta daukazu zer datorren. Uhea iristean beste kontu bat izango da, noski, baina orain ez nago horri begira.

Lehen sektoreak izan du arretazken osoko bilkura honetan. Baserritarrei eta arrantzaleei erantzuten jakingo du Europako Parlamentuak?

Nekazariak eta arrantzaleek argi daukate klima aldaketa bat gertatzen ari dela, eta guztion artean egin behar diogula aurre horri. Gure lehen sektorea aitzindaria da hartutako neurrietan. Nork daki ingurumena zaintzen haiek baino hobeto? Horregatik da garrantzitsua helburuak sektorearekin batera ezartzea, ezar daitezkeenak ezartzeko, égingarriak direnak. Gainera, sektoreak berak dio bera dela kontrol handiena duena. Burokrazia hori guztia aldatu behar da. Eta, horrez gain, elikaduraren katean beste kokapen bat behar dute, ez baita posible ekoizpena neurri gogor horien pean egitea eta gero produktuak ez saltzea horren neurria.

Banaketaren sektorean esku hartu behar du administrazioak?

Guk hori defendatu dugu: sektoreak beste posizio bat behar du katearen barruan. Esnearen arazoa oso adierazgarria da. Kostuen azpitik saldu dute, eta orain badakigu esnearen kartel bat egon dela.

Natura leheneratzeko araudiaren aurka eman duzu botoa. Zergatik?

Sektoreak esandakoari entzun diogulako. Helburuak oso handiak dira batzuentzat. Paperean kopuru batzuk jartzea ondo dago, eta inor baino berdeagoa zarela esatea ere bai, baina jasotakoak égingarria izan behar du, eta ez da hala.

«Emakume gisa egin dut beti aurrera, ez gizonen moldeekin eta balioekin»

IZASKUN BILBAO

EAJko europarlamentaria

Eusko Legebiltzarreko presidente izateari utzi, eta europarlamentari bihurtu zen Izaskun Bilbao jeltzalea, 2009an. Aro luze eta oparo baten hasiera izan zen harentzat, eta aste batzuk barru bukatuko da.

2008tik krisiak bata bestearen atzetik harilkatu dira, efa eskuin muturra indarrez agertu da; nora doa Europa?

2009tik hiru krisi sakon bizi izan ditut hemen: lehena, Atzeraldi Handia; austeritate ziklo hori salatu genuen bere garaian. Bankuak erreskatatu ondoren pertsonak erreskatatu behar zirela argi esan genuen. Gero, koronabirusaren pandemia iritsi zen. Lehenean, herritarrak Europako Batasunetik urrundu ziren, eta bigarrean, berriz, hurbildu egin ziren, hartu beharreko neurriak hartu zirelako, txertoekin eta zorraren mutualizazioarekin. Orain, inflazioaren krisia bizi dugu, eta batzuk sufritzen ari dira. Beldurra zabaldu da, baina, datu hotzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu inpaktu emozionala handiagoa dela zenbakiek esaten dutena baino. Beldurraren mezua laban baten antzera sartzen ari da gizartean, eskuin muturraren eskutik, eta horri benetako informazioa ematen egin behar diogu aurre.

Zein da benetako informazio hori?

Europako proiektua bake proiektu bat dela, eta munduan aitzin-

daria dela gure bizitzeko eta antolatze modua. Gure demokrazia inperfektua da sarritan, baina ez dago sistema hoberik.

Ekaineko hauteskundeetan ez zara izango EAJko hautagaia. Alderdiak zeresana izan du erreleboan?

Nire alderdiko presidenteari zera esan nion: «Ez dakit zer duzuen buruan, baina, aldaketa bada, gauzak erraztuko dizkizuet, utzi egingo dut eta». Nirea izan da erabakia.

Eta, hala ere, EAJren lehendakariaren kinielan sartu zintuzten...

Kazetariak zelebreak zarete batzuetan. Albiste horrek ez zuen inolako oinarririk.

1998an hasi zinen parlamentari gisa Eusko Legebiltzarrean. 2005ean, Legebiltzarreko lehen lehendakari emakumea bihurtu zinen. Europako Parlamentuan parlamentari gutxik eramango dute zuk bezainbeste urte. Gizona izango bazina, bide hori guztia egin duzun baino errazago egingo zenuen?

Afiliatu gabe hasi nintzen 80ko hamarkadan, EAJren banaketaren testuinguruan. Emakume gaztea, argala eta txikia nintzen,

eta badakit zer eztabaida sortu zintuen nire aldeko apustuak. Gaztea eta emakumea izateak balioa dauka orain. Nire belaunaldiko emakumeen artean, politikan, zorte handia izan dut beharbada. Baina berdintasunean egin dut ibilbide hori? Ez. Egunerokoa ohartzen zara horretaz, hainbat eta hainbat pasartetan, oztopotan. Baina aurrera egin dut beti emakume gisa, ez gizonen moldeekin eta balioekin. Emakumeak landu egin behar du autoritatea, eta gizonari eman egiten zaio.

Inoiz izan duzu pasarte desatseginen bat zure sexuari lotuta?

Bai. Prentsa arduradunarekin batera joan ekitaldi batera, eta agintaria hura zela uste izan dute batzuetan, gizona delako. Behin, afari ofizial batera joan, eta, entzun behar izan nuena errepikatzea ez da erraza, baina «opiltxo» bati buruz aritu zen agintari bat etengabe niri erreparatuz. Barregarri geratzen ari denari barregarri geratzen uztea izan da beti nire erantzuna.

Urte askoan eskaera ugari egin dituzu, eta lorpen batzuk bideratu. Zer gordetzen duzu buruan, eta zer bihotzean?

Buruan, logika jakin bat aldatzeko

egindako lana. Lehen, Euskadiko enpresa asko etortzen zitzaizkigun Europako legeak betetzeko arazoak zituztelako. Ez, enpresa eta bestelako eragileentzat logikak izan behar du «ni ere Europa naiz, eta Europako legeak egiteko prozesuan hasieratik egon behar dut». Horri esker, proposamen, ideia eta kezka ugari sartu ditugu onartu diren lege askotan. Bestalde, aipatu nahiko nuke emozionalki oso gogoan dudala Hodei Egiluzen alde egindako lana, hura benetan gogorra izan baitzen familiarrentzat.

Ematen du euskara ofiziala izango dela agian Europako Batasunean. Zer diozu?

Orain ematen du lorpen hori Espainiako Gobernuari esker izango dela, baina hamabost urte daramatzagu lanean horren alde. Euskadik hizkuntza gutxitu bat berreskuratzeko egindako lan aitzindaria erakutsi dugu European, eta euskararen erabilera eskatu diegu presidentei; ez dugu lortu, baina Europako Batasuneko hizkuntzen plataforman sartu dugu euskara, eta garrantzitsua da Erasmus programarako eta curriculumak egiteko, adibidez. Eta espero dut datorren legealdian





JOOST DEROY



«Behin, afari ofizial batera joan, eta 'opiltxo' bati buruz aritu zen agintari bat, niri erreparatuz»

«Lana eta lagunak ditut hemen. Ez bazaude ongi, edozer bihurtzen da leku hotza, baita etxean bazaude ere»

euskara ofiziala izatea Europako erakundeetan.

Oihane Agirregoitiak hartuko du zure lekukoa, boto emaileen oniritzia lortzen badu. Ezagutzen al zenuen lehendik?

Bai. Oso hautagai ona da, eta zorte guztia opa diot, haren zortea Euskadirena ere izango baita.

Europako Parlamentua etxe bat edo antzeko zerbait bihurtu al da zuretzat?

Lana eta lagunak ditut hemen. Ez bazaude ongi, edozer bihurtzen da toki hotza, baita etxean bazaude ere. Europarlamentarien artean gutxik izango dute nik izan dudana zortea: edozein eztabaida mahai-gaineratzen denean, Euskadik badu hasiera-hasieratik eskaintzeko eredu bat edo lan ildo bat. Zenbait komisariok esan didate Euskadi altxor bat dela European. Euskadiren azken 30 urteetako bidea ikusita Europa osoarentzat argia dagoela esan berri du komisario batek. Hori baino gauza politagorik ezin dut entzun.

Zer egingo duzu aurrerantzean? Baditut buruan gauza batzuk, baina ez diet eman denbora nahikorik.

Politikan jarraituko duzu?

Ez. ●